



II. ERANSKINA.

JAURLARITZAREN PLAN ESTRATEGIKOAK EGITEKO ETA IZAPIDETZEKO PROZEDURA

1.- PLAN ESTRATEGIKOAK EGITEA

1.1.- OINARRIZKO ILDO ESTRATEGIKOAK ETA EKONOMIKOAK DEFINITZEKO FASEA.

- Sail sustatzaileak Planaren Oinarrizko Ildo Estrategikoak eta Ekonomikoak definitzea. Ildo horiek, gutxienez, alde hauek hartu beharko dituzte aintzat:
 - 1) Administrazioak ase beharreko premiak, eta Gobernuaren Programan definitutako ardatz, konpromiso eta helburuekin zer lotura duten.
 - 2) Planaren oinarri den egoeraren diagnosia eta koiunturaren deskribapena, eta izan dezakeen eboluzioaren perspektiba.
 - 3) Eusko Jaurlaritzari dagozkion arlo eta jarduketa-esparru zehatzak, baita inplikazio garrantzitsuak dituzten beste batzuk ere.
 - 4) Sailen artean edo erakundeen artean koordinatzeko beharra edo aukera.
 - 5) Funtsezko ekonomia- eta aurrekontu-alderdiak, erabil daitezkeen baliabideen arabera, Plana ezartzeko neurriak mugatu eta zehaztuko dituztenak.
- Planaren Oinarrizko Ildo Estrategikoak eta Ekonomikoak definitzeko prozesuan, sail sustatzaileak harremana izango du Lehendakarietzako Koordinazio Zuzendaritzarekin eta Ogasun eta Finantza Sailaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzarekin zein Aurrekontuetako Zuzendaritzekin, planifikatutako arloaren ikuspuntua zuzendaritza haiei dagozkien zeharkako jarduera-eremuekin integratzeko, lankidetzan integratu ere.
- Behin sail sustatzaileak Planaren Oinarrizko Ildo Estrategikoak eta Ekonomikoak idazten amaitu ondoren, zuzendaritza laguntzaileen esku utziko ditu, ildo horiei buruz nahi beste ohar egin dezaten, beren jarduera-esparruei dagokienez, gehienez ere hamar laneguneko epean.

1.2.- PLANA IDAZTEKO ETA HAREN EDUKIAK FINKATZEKO FASEA

- Planaren Oinarrizko Ildo Estrategikoak eta Ekonomikoak abiapuntutzat hartuta, sail sustatzaileak Plan Estrategikoaren edukia landuko du, eta, horretarako, ondorengo kontu hauek hartuko ditu kontuan:
 - 1) Hitzaurrea, lehen aipatutako Planaren Oinarrizko Ildo Estrategikoak eta Ekonomikoak oinarritzat hartuta.
 - 2) Printzipioak eta helburuak.



- 3) Jarduketaren ardatz estrategikoak, eta, hala dagokionean, ardatzak zer jarduketa-ildoren arabera garatuko diren definitzea.
 - 4) Proposatutako ardatz estrategikoekin lotuta zer ekintza garatu behar diren azaltzea.
 - 5) Erakundeekin (gainerako sailak eta planetako eragile gisa identifikatutako beste herri-administrazioak) harremanetan jartzeko formulak, eta eragile ekonomiko eta sozialek eta herritarrek parte hartzeko formulak identifikatzea.
 - 6) Aintzat hartutako ekonomia-baliabideak zehaztea.
 - 7) Planaren kudeaketa-eredua. Barne-antolaketa, goi-mailako organoak eta kudeaketa-organoak zehaztea, eta erabil daitezkeen edo aurreikus daitezkeen giza baliabideak eta baliabide materialak kalkulatzeko.
 - 8) Planaren segimendua eta ebaluazioa egiteko sistema; garatutako estrategia eta neurrien egokitasuna eratzeko aukera ematen duten adierazleak ezarri beharko dituzte.
- Plana egiteko fasean, sail sustatzaileak laguntza eskatu ahalko die Koordinazio Zuzendaritzari zein Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari, Planaren lanketaren gainean sortzen zaion edozein zalantza argitze aldera.
 - Planaren segimenduari eta ebaluazioari buruzko edukiak zehaztu beharko dira Planaren, dagokion atalean, eta eranskin honen 3.2. atalean aurreikusitakoa betetzeko behar diren elementuak eskainiko dituzte.
 - Planaren Segimenduari eta Ebaluazioari buruzko edukiak lan erkidearen emaitzak izango dira; izan ere, lan hori sail sustatzaileak berriaz garatuko du, plana idazteko fase horren barruan, Koordinazio zein Ekonomia eta Plangintza zuzendaritzekin lankidetzan. Prozesu horretan, Herritarrak hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak parte hartuko du, sustatzen dituzten politika publikoak ebaluatzeko erduei eta lanabesei dagokienez, baita interesgarritzat jotzen diren beste eragile batzuek ere (bereziki EUSTATEk, planifikatutako arloari buruzko datu estatistikoaren helmena hobeto ezagutzen duen aldetik).

2.- ONARTZEA ETA LEGEBILTZARRERA BIDALTZEA

2.1.- GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU AURRETIKO TXOSTENAK.

- Behin Plan Estrategikoa idazten amaitu ondoren, sail sustatzaileak ondorengo jarduketak egingo ditu, Gobernu Kontseiluari bidaltzeko, azken horrek onar ditzan.
- Lehendakaritzako Koordinazio Zuzendaritzari txostena egiteko eskatuko dio. Txosten horretan, Planaren ondorengo aldeak baloratuko dira:



- Jaurlaritzaren programan ezarritako edukiak eta helburuak, eta Legegintzaldiko gainerako erakunde-dokumentuak.
 - Jaurlaritzaren plangintza orokorra.
 - Jaurlaritzaren ekimenak zer testuingurutan kokatzen diren EAeko erakunde-eraketaren markoan eta eskumen-markoan.
 - Inguruneke beste administrazio-esparru batzuetan egiten diren arloko planteamenduak.
 - Koherentzia teknikoa Plangintzaren oinarritzko alderdiekin.
- Sail sustatzailearen Koordinazio Zuzendaritzari bidaltzearekin batera, izapidetzen ariko den plana Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari zein Aurrekontuetako Zuzendaritzari helaraziko die, iritzia emateko aukera izan dezaten, esleituta dituzten funtzioetan eragina duen edozein konturi buruz.
 - Koordinazio Zuzendaritzak sustatuko du batera bidaltzea bere txostena eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak zein Aurrekontuetako Zuzendaritzak egokitzat jotzen dituzten ekarpenak. Bidalketa hori sail sustatzaileari helaraziko zaio, eskatu eta hiru astean barruan.
 - Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena. Gobernu Kontseiluari helarazi aurretik, sail sustatzaileak helarazi beharko dio espedienteak Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, azken horrek txostena egin dezan, ekainaren 30eko 14/1994 Legeari jarraikiz (Euskadiko Kontrol Ekonomikoari eta Kontabilitateari buruzkoa).

2.2.- GOBERNU KONTSEILUAK ONARTZEA ETA LEGEBILTZARRERA BIDALTZEA.

- Behin jaso beharreko txostenak jaso eta dagozkion doiketak egin eta gero, sail sustatzaileak Gobernu Kontseiluari helaraziko dio Plan Estrategikoa, azken horrek onar dezan eta Legebiltzarrera bidal diezaion.
- Onespen-erabakiak dagozkion planerako zer jarraipen- eta ebaluazio-formula erabiliko den zehazteko atal bat izango du.
- Orobat, erabakiak Legebiltzarrera bidaltzeko formula jasoko du. Formula hori bere kasuan egiten den arau-aurreikuspenean ezarritakoa izango da, edo Legebiltzarrak berak ezarritakoa, eta, bestela, Planaren izaeraren arabera egokitzat jotzen dena.
- Prozedura espezifiko bat ezartzen duen xedapen orokor bat dagoenean, xedapen hori onartzeko eta Legebiltzarrera bidaltzeko prozedura arau-aurreikuspenetara egokituko da, eta II. eranskin honetan jasotakoekin osatuko da, bere arauen kontra ez dauden kontu guztietan.



3.- PLANA GAUZATZEA, ETA HAREN SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA EGITEA.

3.1.- PLANA GAUZATZEA

- Sail sustatzaileak sustatuko du Plana eta haren jarraipena egingo du, Planean bertan jasotako "Kudeaketa-ereduari" jarraikiz.
- Planifikatutako garaian sortzen diren gorabeherak, baldin eta Planaren alde estrategikoak edo ekonomikoak funtsean aldatzen badituzte, Gobernuaren Kontseiluari jakinaraziko zaizkio.
- Gerora gertatzen diren gorabeherak Gobernu Kontseiluari jakinarazteko, Planaz arduratzen den sailak jakinaraziko dio Koordinazio Zuzendaritzari zer zirkunstantziak ekarri duten aldaketa funtsezkotzat jotzea, eta zer-nolako inpaktua izan duten Planaren helburuetan eta Jaurlaritzaren jardunean. Gertakariak dagozkien jarduketa-esparruetan eragina badu, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari eta Aurrekontu Zuzendaritzari (bati edo biei) gertaera horren berri emango die zuzendaritza horrek, haiek ere gertaera azter dezaten, eta jakinarazitako gertaerak jasotako helburuetan zer eragin izan dezakeen azal dezaten.

3.2.- PLANEN SEGIMENDUA ETA EBALUAZIOA

- Planak berak jasotako baldintzen arabera egingo zaie jarraipena eta ebaluazioa Jaurlaritzaren plan estrategikoei. Gobernu Kontseiluak ematen duen onespren-erabakian adierazi beharko dira baldintza horiek.
- Planen jarraipenak alderdi hauen berri emango du:
 - Aurreikusitako ekimenak zenbateraino bete diren, aurreikusitako epearen arabera.
 - Aurreikusitako neurriek garatutako ekimenetan hasierako zer eragin izan duten kalkulatzea.
 - Ekimenak egitean edo ezartzean izandako gertakari azpimarragarrienak eta emaitzetan gerta litezkeen eragina aztertzea.
 - Azken emaitzekin alderatuta, Planaren eragina kalkulatzea.
- Jarraipena zehazten duen Planaren atalean aurretik ezarritako eta jasotako formatuaren arabera egingo zaio jarraipena Planari. Jarraipen-formatu horrek zehaztuko du Planaren monitorizazioa zer alderdi eta/edo adierazleren arabera garatuko den, baita jarraipenak zer iturri eta informazio-oinarri hartuko dituen oinarritzat ere
- Egokitzen jotzen diren adierazle kuantitatibo eta kualitatiboren arabera zehaztuko da Planaren ebaluazioa, Planaren lehentasunezko helburuak kontuan hartuta eta



Jaurlaritzaren programaren planteamenduekin, Europar Batasuneko erakundeek ezarritako estrategia orokorrekin eta sektorialekin, eta dagokion esparruan Euskadiko errealitatearekin koherentzia gordez.

- Sail sustatzaileek bidaliko diete Koordinazio Zuzendaritzari, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari zein Aurrekontuetako Zuzendaritzari egiten diren segimenduen eta ebaluazioen informazioa. Edonola ere, urteko segimendu-txosten bat egin beharko da, gutxienez.

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2013ko ekainaren 11n.